

BANDOA

Mungiaiko Udaleko Alkate Udalburuak, Udal-ordezkarri politiko guztien adostasunagaz, **martiaren 8a Emakumeen Nazinoarteko Eguna** dala eta, **Berdinsarearen Adierazpen Instituzionalagaz** bat egiten dauela adierazoten dau.

Gaur egun, batean eta bestean bizi doguzan krisi desbardinaren testuinguru honetan, **gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu gura dira**, bardintasun-arrakalak gitxitzeko asmoagaz; izan bere, arrakala horreek handitu egin diralako gizatearen zati handi batentzat; batez bere, emakumeentzat. Funtsezkoa da **politikan zein erabagiak hartzen diran gune eta arlo guztietan emakumeek bardintasunean jardutea eta lidergoa izatea**. Emakumeen parte-hartzeak, ostera, **mugatua izaten jarraitzen dau**; kasurako, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibersidadean, sindikatuetan, alkarte eta kooperatibetan eta beste hainbat sektoretan.

Martxoak 8 honetan, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuaren eredu batetik abiatuta. Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko beharrezkoa da: andrei podere-espazioak partekatzea eta eskaintzea eragozten deustiezan **erresistentzia eta inertziei aurre egitea; jagote-lanen banaketa erantzukidean** aurrera sendo egitea; balioa emotea **zaintza** eta bestelako lan feminizatuen **sektore profesional** prekarizatuei; emakumeek lidergo-gaietan daukien konfiantza mugatzen daben **estereotipo eta aurreretxiei** kontra egitea; **emakumeen kontrako indarkeria** era guztiak erro-errotik desagerrarazotea, baita indarkeria politikoa bere; **emakumeen eta nesken eskubideak** agenda feministaren erdigunean jartzea.

Horregaitik, konpromiso honek hartzen doguz andrazkoen lidergoa bultzatzeko, eta poderea bardintasunean egikaritu ahal izateko baldintzak errazteko:

1. Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzaileak abian jartzea.
2. Ahalduntze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzea.
3. Mugimendu feministaren eta emakume-alkarteen parte-hartzea indartzea, erabagi partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.
4. Bardintasun-planen interseksionalitatea indartzea.
5. Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea.
6. Politika-lanetan sartzen diran emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduntze-guneak antolatzea.
7. EUDELi eskatzea indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposatu daizala eta ordezkaritza orekatu baterantza egiten diran aurrerapenak babestu daizala.

Horregaz batera, Udal honek bat egiten dau Mungialdeko emakumeen alkarteek eta talde feministek **martxoaren 8an, eguaztena, 20:00etan** Udaletxe inguruan deitutako **kontzentrazioagaz**.

Amaitzeko, dei egiten deutsegu herritarrei Emakumeen Nazinoarteko Egunaren aldarrikapenari era aktiboan eusteko eta bai Udaletik, bai mugimendu feministatik, bai emakumeen alkarteetatik eta bai Mungiaiko kultur eta kirol alkarteetatik **antolatzen diran jarduera eta mobilizazio guztietan parte hartzeko**.

El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Mungia, de conformidad con la totalidad de la representación política municipal, y con motivo del **8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres**, declara que se adhiere a la **Declaración Institucional de Berdinsarea**.

En el contexto actual de crisis múltiples se busca **replantar los modelos social, económico, medioambiental y de gobernanza** a fin de reducir las brechas de desigualdad, que han aumentado para gran parte de la humanidad y, principalmente, para las mujeres. **La participación y liderazgo de las mujeres en la política y en todos los ámbitos de decisión** en pie de igualdad, son fundamentales. Sin embargo, **sigue siendo limitado**, ya sea en la política, la administración pública, empresas privadas, universidad, sindicatos, asociaciones y cooperativas, y otros sectores.

Este 8 de marzo, es prioritario impulsar los liderazgos de las mujeres desde un modelo de gobernanza feminista y de liderazgo compartido. Para trabajar por la participación de las mujeres es necesario: **combatir las resistencias e inercias** que impiden compartir y ceder espacios de poder; avanzar en una **distribución corresponsable de las tareas de cuidado**; poner en valor el **sector profesional de los cuidados** precarizados; combatir los **estereotipos y prejuicios** que limitan la confianza de las mujeres en el ejercicio de los liderazgos; erradicar todas las formas de **violencia hacia las mujeres**, incluidas la violencia política; colocar los **derechos de las mujeres y de las niñas** en el centro de una agenda feminista.

Por ello, nos comprometemos a impulsar el liderazgo de las mujeres y a favorecer las condiciones para el ejercicio del poder en igualdad a través de:

1. Iniciar procesos participativos para la creación de Casas de Mujeres.
2. Dotar los programas y las escuelas de empoderamiento de recursos y espacios adecuados.
3. Fortalecer la participación del movimiento feminista y las diferentes asociaciones desde un compromiso de toma de decisiones compartida.
4. Reforzar la interseccionalidad de los planes de igualdad.
5. Generar datos desagregados por edad y género.
6. Articular espacios de aprendizaje y empoderamiento para mujeres que acceden a la política.
7. Instar a que EUDEL proponga protocolos para hacer frente a la violencia política y apoye los avances hacia una representación equilibrada.

Asimismo, este ayuntamiento se adhiere a la **concentración** convocada por las asociaciones de mujeres y grupos feministas de Mungialdea el **miércoles 8 de marzo, a las 20:00 horas** en las inmediaciones del ayuntamiento.

Finalmente llamamos a la ciudadanía a mantener activa la reivindicación del Día Internacional de las Mujeres y **a participar en todas las actividades y movilizaciones** que se organicen, tanto desde el ayuntamiento, como desde el movimiento feminista, las asociaciones de mujeres, y las asociaciones culturales y deportivas de Mungia.

Mungia, 2023ko martiaren 6an



MUNGIA
UDALA
ALKATEAK
Ager Izagirre Loroño